

Maitasun amuak harrapatuta

Axut konpainia 'Amua' obra antzezten hasiko da berriz ere • Maitasuna abiapuntu gisa hartuz, eredu tradizionalaz gogoeta bultzatzea dute xede • Emanaldiez gain, material pedagogikoa ere prest dute

Ainize Madariaga Ziburu

Zer da maitasuna? Zer da maitatzea? Sentimendua baizik ote da? Ekintza? Printze-printzesen ipuin klasikoetako errepresentazio sinplea hori dea? Bukaera uros estatiko dua? Erromantikoa dea? Sedukzioak badua maitasunik? Behar dea maitasunik? Bat eta bakarra dea? Axut antzerki konpainiaren *Amua* obrak harrotzen ditu galdera horiek oro eta haboro. Pandemiak obraren bira hilabete luzez gibelatu ondotik, Ipar Euskal Herrian lehen aldiz emanen dute publikoki, Ziburun (Lapurdi), maiatzaren 21ean, 19:00etan.

Ana, Txolarre eta Aitor elkartuko dira Iratikoko etxola batean. Lehenaren maitale izandakoak dira biak, eta ez dute batak bertzearen etorreraren berririk. Hiruren arteko eztabaida mamitsuek betekoa dute taula gaina, maitasunaz galdezka, filosofiaz beterik, gogoeta pizle. Maite Larburuk Anaren rola betetzen du; Ximun eta Manex Fuchsek, berriz, Aitorrena eta Txolarrerena.

Komedia sentimental politiko jarri diote azpititulua; hiru hitzak bateragarriak dira? «Politika eta sentimendua lotzea ez da hain ohikoa, nahiz eta agerikoa izan elkarri eragiten diotela, eta norabide bikoitzean, gainera. Pandemiak garailatz hauetan argiki ikusi da zenbat eragiten digun erabaki politiko batek», argitu du Ximun Fuchs *Amua* obraren zuzendari, idazle eta antzezleak.

Txiki-txikia bezain handia

Zein izari du maitasunak? Besoek har dezaketen baino proportzio handiagoa duela azpimarratu du Fuchsek: «Komunitate gisa biziraun eta biziraunen badugu, maitasunari esker izan eta izanen da: ez bakarrik bikote harremanean, laguntasunean, familian, enpation... Zoriontzekoa da. Eta utopia asko dugu oraindik asmatzeko, elkarri erateko».

Axut konpainiaren ildo editorialak honako galdera hau ere planteatzen du: «Nola egingo dugu kezatzeko, maitatzeko, haserretzeko, oihukatzeke, iraintzeko eredurik ez badugu? Zerk sortuko ditu ereduak, arteak ez



Manex Fuchs, Maite Larburu eta Ximun Fuchs, *Amua* antzezlanean. AINHOA RESANO

beda?». Preseski, *Amua* antzezlana Irati oihanean kokatu dute, natura eta kultura aurrez aurre ezartzeko gisan: «Erraten da maitasuna naturala dela, baina

Larburu musikariari esker. Baina ez da bakarrik soinu ekarle, baizik eta lehen aldikoz arizale lanetan ere badabil: «Maitek badu sekulako tokia obran. Kontrapuntua ere bada, beste toki batetik baitator, eta bere mundua ekartzen digu».



Kolektiboki partekatzen dugu hain intimoa den zerbait. Uste dut poz zerbait eragiten diola publikoari»

Ximun Fuchs
Obraren zuzendari, idazle eta aktorea

non ikasten dugu muxu ematen? Filmetan ikasten da: erabat kulturala da. Eta zein euskarri dugu euskaraz? Badugua gure hizkuntzan horretarako tresnarik? Bai: aski da ikustea euskal kantutegia zeinen aberatsa den».

Horregatik eman diote musikari hainbertzeko tokia, Maite

EMANALDIEN DATAK

Pandemiak galgatu badu ere Axut konpainiaren jarduera, sekula ez da geldirik egon. Haatik, publiko zabalari begira, berpizten ari da. Honako hauek dira zehaztuak dituen emanaldietako batzuk:

Maiatzak 19: Ziburu (Lapurdi).
Ekainak 4: Baigorri (Nafarroa Beherea).
Ekainak 5: Hazparne (Lapurdi).
Ekainak 18: Senpere (Lapurdi).
Irailak 23: Donapaleu (Nafarroa Beherea).
Urriak 1, 2 eta 3: Donostia.
Urriak 6: Bilbo.
Urriak 10: Donibane Lohizune (Lapurdi).
Urriak 13: Irun (Gipuzkoa).
Urriak 16: Berriz (Bizkaia).
Urriak 23: Markina-Xemein (Bizkaia).
Azaroak 4 eta 5. Hendaia (Lapurdi).

dugun moldean. Alta, maitasuna galdekatze eterno da, baina ez du erantzunik!», ohartarazi du Fuchsek.

Prototipoen kontrapuntua

Axut konpainiak badu arrangura berezia, ez baitu sorkuntza taula gainera mugatzen. Hezkuntza artistikoari garrantzi berezia ematen baitio. *Amua* obrak ere ez du hutsik egin. Arantxa Hirigoien arduratu da taldearen adar horretaz: antzezlaren idazketan parte hartzeaz gain, irakasle eta ikasleei zuzendu material pedagogikoa prestatu du.

Tailerrak ere animatu ahal izan ditu pandemia garaian: «Sorkuntza tresna egokia da gaiez eztabaidatzeko». Preseski, Hirigoien xedeetako bat da maitasunaren prototipoen gogoetatzea: «Maitasun erromantikoa hori zer da? Mito hori? Zer da maitasuna? Nondik maitatzen da?».